IV. BALDINTZAK, TRESNAK ETA BERMEAK

11. artikulua. Baliabideak eskaintzea.

Udalak behar diren baliabide tekniko eta ekonomikoak eskainiko dizkio Oñatiko Emakumion Kontseiluari, aitortutako funtzioak egokitasunez bete ditzan:

– Urteko aurrekontu bat esleituko zaio, Kontseiluak egoki irizitako ekimen edo baliabideak finantzatzeko. Gastu onarpena eta aurrekontuaren kudeaketa, bai eta fakturen onarpena eta gastu horren kudeaketatik eratorritako beste edozein trami-te edo egiteko, udalaren ohiko prozeduren bidez burutuko dira, dagokion arduradun politiko edo/eta teknikoaren bidez eta Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean eta Administrazio prozedura arautzen duen 39/2015 Legean jasotako terminoetan.

- Berdintasun teknikariaren babes teknikoa.
- Partaidetza teknikariaren babes teknikoa.
- Gainerako teknikarien eta pertsonal politikoaren parte hartzea, beharren arabera.
- Espazioen erabilera: udal instalazioak erabili ahal izango ditu kontseiluak asanblada orokor eta lantaldeetako bileretarako.

12. artikulua. Informazioa partekatzea.

Berdintasunetik eta udaleko gainerako departamentuetatik abian diren plangintza eta proiektuen gaineko informazioa erraztuko dio udalak Kontseiluari, bi aldeetako batek hala adierazita. Parte hartu ahal izateko oinarritzeko baldintza da informazioa eta, beraz, kontseiluaren eragite ahalmenaren oinarrian ezar-tzen da partekatutako informazioa egokia eta argia izatea.

Informazioa partekatzeko eta konfidentziasuna eta pribatasuna zaintzeko irizpideak honela ezartzen dira:

12.1. Udaleko departamenduen eta kontseiluaren arteko informazio trukeak edo eskaerak kontseiluko idazkariaren bitartez bideratuko dira.

12.2. Partekatutako informazioak egokitasuna, argitasuna eta zehaztasuna bilatuko ditu.

general del Ayuntamiento de forma telemática o en el Servicio de Atención Ciudadana. Se podrán realizar nombramientos en cualquier momento.

Artículo 8. Pérdida de la condición de miembro.

Se perderá la condición de miembro en los siguientes supuestos:

- Por renuncia voluntaria, comunicada por escrito.
- Por incumplimiento reiterado del reglamento y normas del consejo, de resoluciones de los órganos de gobierno o por perjudicar gravemente el funcionamiento del Consejo.
- Por faltar a cuatro sesiones consecutivas sin explicación alguna sobre su ausencia.

Las bajas del Consejo se llevarán a cabo por decreto de Alcaldía. La pérdida de la condición de miembro del Consejo podrá tramitarse en cualquier momento. La solicitud deberá realizarse por escrito mediante petición general y registrada en el Servicio de Atención Ciudadana o de forma telemática.

Artículo 9. Retribuciones.

Las personas que formen el Consejo no percibirán retribución alguna por el ejercicio de sus funciones.

Artículo 10. Motivos de abstención y recusación.

Los miembros del Consejo se abstendrán de participar en el procedimiento de votación en aquellos asuntos en los que esté en juego el interés personal y así lo comunicarán a la Presidenta de la Comisión. Ésta resolverá lo más justo.

IV. CONDICIONES, INSTRUMENTOS Y GARANTÍAS

Artículo 11. Ofrecer recursos.

El Ayuntamiento proporcionará al Consejo de Mujeres de Oñati los medios técnicos y económicos necesarios para el adecuado desempeño de las funciones reconocidas:

– Se le asignará un presupuesto anual para financiar las iniciativas o recursos que el Consejo considere oportunos. La aprobación del gasto y la gestión del presupuesto, así como la aprobación de facturas y cualquier otro trámite o tarea que se derive de la gestión de dicho gasto, se llevará a cabo mediante el procedimiento común municipal, a través de la responsable política y/o técnica correspondiente y en los términos previstos en la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público y la ley 39/2015 del procedimiento administrativo común.

- Apoyo técnico de la técnica de igualdad.
- Apoyo técnico de la técnica de participación.
- Participación del resto del personal técnico y personal político en función de las necesidades.
- Utilización de espacios: el consejo podrá utilizar las instalaciones municipales para las reuniones de asambleas generales y grupos de trabajo.

Artículo 12. Compartir información.

El Ayuntamiento facilitará al Consejo, cuando alguna de las partes así lo indique, la información relativa a los planes y proyectos en marcha desde el departamento de igualdad y desde el resto de departamentos municipales. La información es un requisito básico para poder participar, por lo que la capacidad de acción del consejo se establecerá en relación a la idoneidad y claridad de la información compartida.

Los criterios para compartir información y preservar la confidencialidad y privacidad se establecen de la siguiente manera:

12.1. Los intercambios de información o peticiones entre el Ayuntamiento y el Consejo se canalizarán a través de la Secretaria del Consejo.

12.2. La información compartida será pertinente, clara y precisa.

12.3. Ez da pertsonen datu pribaturik jasotzen duen dokumenturik partekatuko.

12.4. Egitasmoren batek, bere izaeragatik, estrategia komunikatiboagatik edo bestelako arrazoiak medio konfidentialtasun izaera badu, hala adieraziko da partekatutako dokumentuan. Ahoz jasotako informazioaren kasuan, ahoz adieraziko da konfidentialtasuna eta aktan jasota geratuko da.

12.5. Partekatutako dokumentazio eta informazioak indarrean dagoen datu babeserako legedia bete beharko du.

13. artikulua. Kontseiluaren eragin eremua.

a. Udalak kontseiluaren proposamenak bere egiteko konpromisoa hartzen du, honako kasu hauetan:

– Urteko plangintzen diseinua eta jarraipena (bai Berdintasun arloari dagokion plangintzarena, bai eta gainerako arloei dagokiena ere, Berdintasun planaren jarraipenaren harira).

– Berdintasun arloko proiektuen diseinu, exekuzio eta jarraipena (Aukeratzen diren proiektuenak).

Bermeak:

1. Quoruma: kideen 3/4.

2. Teknikariaren, idazkariaren eta/edo kontu-hartzailearen aldeko txosten tekniko, objektibo eta arrazoitua (edo aurkako txostenik ez egotea).

3. Hirugarrenik ez egotea inplikaturako prozesuan, aurkakotasunez.

b. Dialogatu egingo dira berdintasun kontseiluarekin udalaren erabakiak, honako kasu hauetan.

– Urteko plangintzen ebaluazioa (bai Berdintasun arloari dagokion plangintzarena, bai eta gainerako arloei dagokiena ere, Berdintasun planaren jarraipenaren harira).

– Berdintasun arloko proiektuen ebaluazioa.

c. Informatu egingo dio Udalak Berdintasun Kontseiluari, honako kasuetan:

– Beste arloetako proiektuen edo egitasmoen diseinua, jarraipena eta ebaluazioa.

d. Oraingoz, baztertu da eremu hauetan esku hartzea:

– Urteko plangintzen exekuzioa.

– Beste arloetako proiektuen exekuzioa.

– Aurrekontuen diseinu, exekuzio, jarraipen eta ebaluazioa.

Kontseiluaren eragite ahalmen mailakatua adostu da udala eta kontseilukideen artean, eragite-eremuaren (arloko edo beste departamenduetako plangintzak, aurrekontuak edo ekintzak) eta parte hartze moduen (informatu, dialogatu, proposatu) arabera antolatua. Dena den, kontseiluaren eraketa prozesuaren hausnarketan jasotakoa ekarriz, azpimarratzen da Oñatiko Emakumion Kontseiluak erabakimenean baino gehiago eragiteko gaitasunean jarri nahi duela begirada. Hala, kontseiluaren azken helburua politika publikoetan inpaktua izatea baldin bada, herritarrengan eragin handiagoa duten gaietan eragiteko gaitasunari erreparatuko zaio gehiago, inpaktu txikiagoko gaietan erabakimena izateari baino.

Inpaktua erabakimenaren gainetik jartzen da, Emakumion Kontseiluaren jarduna erabakigarria eta eraldatzailea izan dadin.

Hala, jardun horren ebaluaziorako irizpide eta sistema egoiak bilatu beharko ditu udalak.

12.3. No se compartirán documentos que contengan datos personales privados.

12.4. Cuando la información sobre un proyecto concreto se considere de carácter confidencial, ya sea por su naturaleza, por su estrategia comunicativa u otras razones, así se indicará en el documento compartido. En el caso de la información facilitada de forma verbal, se indicará verbalmente la confidencialidad de la misma y quedará constancia de ello en el acta.

12.5. La documentación e información compartida deberá cumplir la legislación vigente en materia de protección de datos.

Artículo 13. Ámbito de influencia del Consejo.

a. El Ayuntamiento se compromete a hacer suyas las propuestas del Consejo en los siguientes casos:

– Diseño y seguimiento de los planes de trabajo anuales (tanto de la planificación correspondiente al área de Igualdad como del resto de áreas en relación con el seguimiento del Plan de Igualdad).

– Diseño, ejecución y seguimiento de proyectos en materia de igualdad (Proyectos seleccionados).

Garantías:

1. Quórum: 3/4 miembros.

2. Informe técnico, objetivo y motivado favorable (o ausencia de informe desfavorable) de técnicas/os, secretario y/o interventor municipal.

3. Que no haya terceras personas implicadas en el proceso de forma opuesta.

b. Se dialogarán los acuerdos municipales con el consejo de igualdad en los siguientes casos.

– Evaluación de los planeamientos anuales (tanto de la planificación correspondiente al área de Igualdad como del resto de áreas en el seguimiento del Plan de Igualdad).

– Evaluación de proyectos en materia de igualdad.

c. El Ayuntamiento informará al Consejo de Igualdad en los siguientes casos:

– Diseño, seguimiento y evaluación de proyectos o proyectos de otras áreas.

d. Se excluye, por el momento, la intervención en los siguientes ámbitos:

– Ejecución de planeamientos anuales.

– Ejecución de proyectos de otras áreas.

– Diseño, ejecución, seguimiento y evaluación de los presupuestos.

Se acuerda una capacidad de influencia gradual, organizada en función del ámbito de actuación (planes, presupuestos o acciones del área u otros departamentos) y de las formas de participación (informar, dialogar, proponer). No obstante, de acuerdo con lo recogido en la reflexión del proceso de constitución del consejo, se subraya que el Consejo de Mujeres de Oñati quiere poner la mirada en la capacidad de influir más que en la de decidir. Así, si el objetivo final del consejo es el de tener un impacto en las políticas públicas, se centrará más en la capacidad de incidir en aquellas cuestiones que tienen un mayor impacto en la ciudadanía, que en la capacidad de decisión en temas de menor impacto social.

Se antepone el impacto a la vinculabilidad para que la actuación del Consejo de Mujeres sea decisiva y transformadora.

El ayuntamiento deberá buscar criterios y sistemas adecuados para la evaluación del impacto de la actuación del consejo.

14. artikulua. *Deliberazioak eta adostasunak.*

14.1. *Deliberazioak.*

a) Emakumion Kontseiluko lehendakariak zuzenduko ditu bilerak, eztabaidak moderatu ditu eta komeni diren neurriak hartuko ditu bileretako ordena egokia bermatzeko. Horretarako izendatutako beste kide baten laguntza izango du.

b) Emakumeen Kontseiluko bilkurak dinamizatzeko kanpo aholkularitza kontratatzen den kasuetan, honen laguntza ere izango du lehendakariak.

14.2. *Adostasunak eta bozketak.*

a. Erabakiak adostasunez hartuko dira, bozketa bigarren aukera gisa utzirik. Izan ere, kontsentsu bidezko erabakiak zenbat eta zabalagoak izan, orduan eta irmoagoak izango dira erabakiak.

b. Bozketa egiten den kasuetan, erabakiak bertaratuen gehiengo soilez hartuko dira, 7. artikuluaen a) atalean ezarritako kasuan salbu. Udalak proposamena bere egiteko, kontseilukideen hiru laurdenen adostasuna beharko du. Berdinketa badago, lehendakariak kalitatezko botoa erabiliko du. Edonola ere, boto partikularrak ere eman daitezke, eta erabakiarekin bat egiten ez dutenek objektioak jasota geratzea eskatu ahal izango dute.

c. Bozketa egin aurretik, Kontseiluko lehendakariak argi eta zehatz azalduko du zer eta nola bozkatuko den.

Botoa baiezkoa ala ezezkoa izango da, eta abstenitzeko aukera ere izango da.

Botoa argi eta garbi adieraziko da eta ez da baimenduko botoa Kontseiluko beste kide baten esku utzea.

d. Bozketa amaituta, Kontseiluko idazkariak botoak zenbatu eta emaitza ozenki jakinaraziko du. Ondoren, hartutako erabakiaren berri emango du lehendakariak.

e. Hartutako erabakiak idazkariak egingo duen akta batean jasoko dira eta akta hori dagokion espedienteetan jasoko da. Ondoren, udalaren web orriaren bidez publiko egingo da.

15. artikulua. *Parte hartzea sustatzea.*

Udalak Kontseiluan parte hartzea sustatuko du eta aniztasuna bermatzeko bitartekoak eskainiko ditu. Kontseilurako sarbideak irekia izan nahi du, eta herriko emakumeei kontseilurako sarbidea gardentasunez eta erraztasunez aurkeztea da helburuetako bat.

Udalari dagokio parte hartzeko bideak irekitzea, komunikazioa lantzea, trebatzeko tresnak eskaintzea eta parte-hartze demokratikorako baldintzak eskaintzea, baita kontseilurako sarbidea errazteko neurriak hartzea ere.

Hala, kontseilurako sarbidea ahalbidetu eta bertako kideen arteko parte-hartzea kalitatezkoa izan dadin, gaikuntza mailan bide paraleloa egiteko ardura hartuko du Oñatiko Udalak, jabetze eskolaren bidez, edo berariaz helburu horretarako sortutako bestelako baliabide edo espazioen bitartez.

16. artikulua. *Udal funtzionamenduan txertatzea*

Udalari dagokio kontseiluaren jardunari balioa ematea, eta erreferentziatzeko gune bezala indartzea udal mailan ere, horretarako beharrezko diren baliabideak bideratuz. Honen gainean udal mailan beharrezko diren lan-ildoak landu beharko dira, bai maila teknikoan, bai politikoan:

- Informazioa partekatzea.
- Formazioa eta sentsibilizatorako bideak eskaintzea.
- Lan moldeen berrikuspena.
- Udal antolaketa eta proiektuen kudeaketarako mekanismoen errebisioa.
- Egoki ikusten den beste edozein.

Artículo 14. *Deliberaciones y consensos.*

14.1. *Deliberaciones.*

a) Las reuniones serán presididas por la Presidenta del Consejo de mujeres, moderando los debates y adoptando las medidas oportunas para garantizar el buen orden de las mismas. Estará asistida por otro miembro designada al efecto.

b) En los casos en los que se contrate asesoramiento externo para la dinamización de las sesiones del Consejo de las Mujeres, la Presidenta contará también con su colaboración.

14.2. *Consensos y votaciones.*

a. Los acuerdos se adoptarán por consenso, dejando la votación como segunda opción para la toma de decisiones. Por que cuanto más amplias sean las decisiones por consenso, más firmes serán las decisiones.

b. En los casos de votación, los acuerdos se adoptarán por mayoría simple de las asistentes, salvo lo establecido en el apartado a) del artículo 7. Para que el Ayuntamiento haga suya la propuesta, deberá contar con la conformidad del $\frac{3}{4}$ de sus miembros. En caso de empate, la Presidenta ejercerá el voto de calidad. En todo caso, también podrán emitirse votos particulares, pudiendo los miembros que discrepen solicitar que consten las objeciones al acuerdo adoptado.

c. Antes de la votación, la Presidenta del Consejo expondrá de forma clara y precisa qué se va a votar y cómo.

El voto será sí o no, y podrá abstenerse.

El voto se expresará claramente y no se permitirá delegarlo en otro miembro del Consejo.

d. Terminada la votación, la Secretaria del Consejo procederá al escrutinio de los votos y dará a conocer el resultado en voz alta. Posteriormente, la Presidenta dará cuenta de la decisión adoptada.

e. Las decisiones adoptadas se recogerán en el acta que redacte la secretaria y se hará constar dicha acta en el expediente correspondiente. Posteriormente se hará público a través de la página web del Ayuntamiento.

Artículo 15. *Fomentar la participación.*

El Ayuntamiento fomentará la participación en el Consejo y facilitará los medios para garantizar la diversidad. El acceso al consejo pretende ser abierto y se establece como objetivo la transparencia y facilidad en el acceso a él.

Al Ayuntamiento le corresponde abrir cauces de participación, trabajar la comunicación, ofrecer instrumentos de capacitación, ofrecer condiciones de participación democrática y adoptar medidas que faciliten el acceso al consejo.

Así, con el fin de posibilitar el acceso y la calidad de la participación, el Ayuntamiento de Oñati, a través de la escuela de empoderamiento, u otros medios o espacios creados al efecto, se encargará de realizar un camino paralelo para la formación y capacitación.

Artículo 16. *Integración en el funcionamiento municipal.*

Corresponde al Ayuntamiento poner en valor la actuación del Consejo y potenciarlo como espacio de referencia también a nivel municipal, destinando los recursos necesarios para ello. A este respecto se deberán trabajar las vías necesarias a nivel municipal, tanto a nivel técnico como político:

- Compartir información.
- Ofrecer canales para la formación y sensibilización.
- Revisión de Modelos de Trabajo.
- Revisión de los mecanismos de organización y gestión de proyectos.
- Otras que se consideren apropiadas.

V. KONTSEILUAREN ANTOLAMENDUA ETA EGITURA

17. artikulua. Kontseiluaren organoak

Lehendakaria.

Saileko arduradun politikoa izango da kontseiluaren lehendakaria, eta betebeharrak hauek izango ditu:

– Kontseiluaren asanblada orokorrak deitu eta horietan buru egitea.

– Kontseiluak egindako proposamenak Udaleko Berritasun Batzordera eta Gobernu taldera eraman eta defendatzea.

– Proposamenen garapenaren berri ematea kontseiluari.

Idazkaria.

Saileko Udal teknikaria izango da. Idazkariaren betebeharrak honako hauek izango dira:

a) Bilera-deiak egitea eta bidaltzea.

b) Bileren aktak sortzea.

c) Mahaikide erregistroa egunean eramatea.

d) Bileretan gaiak aztertzeke eta erabakiak hartzeke behar den dokumentazioa eta informazioa bidaltzea.

e) Esandakoez gain, saileko teknikaritzak eskatzen dizkion gainerako betekizunak.

Kontseiluaren gainontzeko kideak.

Kontseiluan parte hartzeak honako betebeharrak hauek izango ditu:

a) Bileretako gai ordenak proposatzea.

b) Araudian ezarritakoaren baitan jardutea eta bileretan erabakitzen dena betetzea.

c) Partekatutako Informazioaren izaera konfidentziala errespetatzea.

d) Kontseiluaren ordezkari gisa jardutea horretara bideratutako espazio edo ekimenetan.

18. artikulua. Kontseiluaren antolaketa

18.1. Asanblada orokorra.

Asanblada orokorra izango da Emakumion Kontseiluaren deliberazio eta adostasunetarako mahaia. Urtean asanblada orokor bat egingo du Oñatiko Emakumion Kontseiluak, gutxienez. Presazko egoera berezietan, aurrez adostu gabeko bilerak deitzeke aukera egongo da. Kasu horretan, deialdia mahaiburuak egingo du, beraren ekimenez, edo mahaikideen gutxienez heren batek hala eskatuta.

Lehendakariak deituko ditu asanblada orokorrak, eta idazkariaren ardura izango da idazkari lana egitea.

Bilera-deiak bost egun lehenago egin behar dira, idatziz. Deiarekin batera, eguneko aztergaia eta aurreko bileraren akta bidaliko zaizkie kontseilukideei.

Asanblada Orokorra lehenengo deialdian baliozki eratzeko gutxienez lehendakaria eta idazkaria egon behar dira –edo haien ordezkariak– eta gutxienez kontseilukideen erdia.

Quorum hori lortzen ez denean, Kontseilua bigarren deialdian eratu da, ordu erdi geroago, bertaratutako kideen kopurua edozein delarik ere, betiere lehendakaria eta idazkaria edo haien ordezkariak bertaratuen artean badaude.

Asanblada orokorrak irekiak izango dira, eta haren deialdia publikoa izango da, baita bileran jasotako akta ere.

Urteko lehenengo asanblada orokorrean, aurreko urteko jarduna balidatu eta urte horretako lan-plana onartuko da. Era berean, Asanblada orokorrak lantaldeari edo lantaldeei delegatu-

V. ORGANIZACIÓN Y ESTRUCTURA DEL CONSEJO

Artículo 17. Órganos del Consejo.

Presidenta.

El Consejo estará presidido por la responsable política del Departamento y tendrá las siguientes obligaciones:

– Convocar y presidir las asambleas generales del Consejo.

– Llevar y defender las propuestas realizadas por el Consejo a la Comisión de Igualdad del Ayuntamiento y al equipo de Gobierno.

– Comunicar al Consejo el desarrollo de las propuestas.

Secretaria.

Será la técnica municipal del Departamento. Serán obligaciones de la Secretaria:

a) Convocatoria de reuniones.

b) Recogida de actas de las reuniones.

c) Llevar al día el registro de participantes.

d) Enviar la documentación e información necesarias para tratar los temas y tomar decisiones en las reuniones.

e) Cualesquiera otros requisitos que le sean asignados.

Resto de miembros del Consejo.

La participación en el Consejo tendrá las siguientes obligaciones:

a) Proponer el orden del día de las reuniones.

b) Actuar conforme a lo establecido en la normativa y cumplir lo que se acuerde en las reuniones.

c) Respetar el carácter confidencial de la información compartida.

d) Ejercer de representante del Consejo en los eventos o espacios destinados al efecto.

Artículo 18. Organización del Consejo.

18.1. Asamblea general.

La Asamblea General será la mesa de deliberaciones y consensos del Consejo de Mujeres. El Consejo de Mujeres de Oñati celebrará al menos una asamblea general al año. En situaciones especiales de urgencia, se podrán convocar reuniones no acordadas previamente. En este caso, la convocatoria se realizará por la Presidencia, por propia iniciativa o a petición de, al menos, un tercio de sus miembros.

Las Asambleas Generales serán convocadas por la presidenta, y la secretaria será quien asuma las labores asignadas a secretaria.

Las convocatorias deberán realizarse por escrito con cinco días de antelación. Junto con la llamada se remitirá a los miembros del Consejo el orden del día y el acta de la reunión anterior.

La Asamblea General se constituirá válidamente, en primera convocatoria, con la asistencia, al menos, de la Presidenta y la Secretaria, o personas que les sustituyan, y la mitad, al menos, del número de miembros del Consejo.

Cuando no se obtenga dicho quórum, el Consejo se constituirá en segunda convocatoria, media hora más tarde, cualquiera que sea el número de miembros presentes, siempre que estén presentes la Presidenta y la Secretaria o las personas que les sustituyan.

Las asambleas generales serán abiertas, su convocatoria será pública y el acta recogida en la reunión también.

En la primera asamblea general del año se validará la actividad del año anterior y se aprobará el plan de trabajo de ese año. Asimismo, la Asamblea General delegará en el equipo de

ko die lan-plan horren garapena eta hari lotutako erabakimena, araudi honen 7. artikuluan zehaztutako baldintza eta berme mekanismoekin.

18.2. Lantaldeak.

Emakumion Kontseiluaren jarduna maila operatiboan lantaldeen bitartez bideratuko da. Kontseiluak berak erabakiko du zenbat lantalde sortuko dituen, eta zein irizpideren arabera.

Orokorrean, hauek izango dira lantaldeen eraketa eta antolaketarako irizpide nagusiak:

- Kontseilukideak izango dira bilera hauek deitu, gai ordena ezarri eta gidatzeaz arduratuko direnak.
- Berdintasun teknikariak eta partaidetza teknikariak lantaldeetan parte har dezakete, bideratzaile eta erraztaile gisa, hurrenez hurren.
- Kontseiluko lehendakariak ez du bilera hauetan parte hartuko, ez eta bestelako ordezkari politikoez ere, lantaldeko kideek hala eskatu ezean.
- Beharren arabera, elkarte, eragile, aditu edo bestelakoen parte hartzea eskatu edo ahalbidetu ahal izango da.
- Unean uneko beharren arabera zehaztuko da bileren maiztasuna.
- Berdintasun teknikariak idazkari tekniko lanak egingo ditu.

VI. OÑATIKO EMAKUMION KONTSEILUKO KIDEEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

19. artikulua. Kideen eskubideak.

Kontseiluko kideek honako eskubide hauek dituzte:

- a. Kontseiluko Asanblada Orokorretan ordezkaturata egotea.
- b. Kontseiluko Asanblada orokorretan hartutako erabakiak betez aurrera eramaten diren jardueren inguruko informazioa jasotzea.
- c. Kontseiluko aktak eta dokumentazioa eskura izatea.
- d. Kontseiluaren eremuan, ekimenak aurkeztu eta interesak defenditzea.
- e. Egoki iritzitako pertsonak Kontseiluko asanblada orokorretara eta sortzen diren lan-batzordeen saioetara gonbidatzea, aztertu beharreko gaien arabera. Hauek hitz egiteko eskubidea izango dute, baina botorik ez.
- f. Kontseiluko bileretan parte hartzea, boz- eta boto-eskubidea dutela.
- g) Udaleko zerbitzuetan dagoen informazioa Kontseiluaren bidez eskatzea, proposamenen bat aurrera eramateko beharrezkoa izanez gero.
- h. Araudi honek edo indarreko legediak onartutako eta aplikagarri zaizkien beste eskubide guztiak.

20. artikulua. Kideen betebeharrak.

Kontseiluko kideen betebeharrak dira:

- a. Asanblada orokorretan parte hartzea, baita hartutako erabakien arabera Kontseiluak bultzatzen dituen gainerako jardueretan edo lantaldeetan ere.
- b. Kontseilua behar bezala garatzen eta sustatzen laguntzea.
- c. Kontseiluaren izenean ez jardutea, horretarako baimezik izan ezean.
- d. Araudian azaldutakoa errespetatu eta betetzea.
- e. Datu pertsonalak aztertzen badira bileretan edo espreski konfidentzialtzat jotako informazioa partekatzen denean, konfidentzialtasuna mantendu beharko dute partaideek.

trabajo o grupos de trabajo el desarrollo de dicho plan de trabajo y la toma de decisión asociada al mismo, con las condiciones y mecanismos de garantía definidos en el artículo 7 del presente Reglamento.

18.2. Grupos de trabajo.

La actuación del Consejo de Mujeres se desarrollará a nivel operativo a través de grupos de trabajo. Será el propio Consejo el que determine el número de grupos de trabajo que creará y con arreglo a qué criterios.

Con carácter general, los criterios generales para la constitución y organización de los grupos de trabajo serán los siguientes:

- Los miembros del grupo de trabajo serán las encargadas de convocar, establecer el orden del día y conducir estas reuniones.
- La técnica de igualdad y la técnica de participación pueden participar en los grupos de trabajo como canalizadoras y facilitadoras respectivamente.
- No asistirá a estas reuniones la presidenta del Consejo ni ninguna otra representante política, salvo petición expresa de las miembros del Grupo de Trabajo.
- En función de las necesidades, se podrá solicitar o posibilitar la participación de asociaciones, agentes, expertas, etc.
- La periodicidad de las reuniones se determinará en función de las necesidades del momento.
- La técnica de igualdad actuará como secretaria técnica.

VI. DERECHOS Y DEBERES DE LAS MIEMBROS DEL CONSEJO DE MUJERES DE OÑATI

Artículo 19. Derechos de las miembros.

Las miembros del Consejo tienen derecho a:

- a. Estar representadas en las Asambleas Generales del Consejo.
- b. Recibir información sobre las actividades que se llevan a cabo, en cumplimiento de los acuerdos adoptados en las Asambleas generales del Consejo.
- c. Disponer de las actas y documentación del Consejo.
- d. Presentar iniciativas y defender intereses en el ámbito del Consejo.
- e. Invitar a las personas que estimen oportunas a las asambleas generales del Consejo y a las sesiones de las comisiones de trabajo que se creen, en función de los temas a tratar. Las personas invitadas tendrán derecho a voz, pero no a voto.
- f. Participar en las reuniones del Consejo con voz y voto.
- g. Solicitar a través del Consejo la información disponible en los servicios municipales, si fuera necesario para llevar a cabo alguna propuesta.
- h. Cuantos otros derechos les sean de aplicación reconocidos por el presente Reglamento o por la legislación vigente.

Artículo 20. Obligaciones de las personas que formen el Consejo.

Son deberes de las personas que conforman el Consejo:

- a. Participar en las asambleas generales y en las demás actividades o grupos de trabajo que impulse el Consejo de acuerdo con las decisiones adoptadas.
- b. Contribuir al correcto desarrollo y promoción del Consejo.
- c. No actuar en nombre del Consejo sin autorización.
- d. Respetar y cumplir lo establecido en la normativa.
- e. Cuando se traten datos personales en reuniones o cuando se comparta información declarada expresamente confidencial, las participantes deberán mantener la confidencialidad.

f. Onartu daitezkeen proposamenak ezingo dira onura pro-piorako erabili. Norbaitek hala egin duela frogatzen bada zigor-arloan epaitu ahal izango da.

g. Araudi honek edo indarreko legediak onartutako eta aplikagarri zaizkien beste betebeharrak guztiak.

VII. AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.

Araudiko testua indarrean sartuko da behin betiko testua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta Toki Erregimeneko Oinarrien Legeko 65.2 artikulua xedatzen duen epea igaro ondoren, harik eta Udalbatzak aldatu edo ezeztatzea erabaki arte.

Bigarrena.

Araudi honetan aipatu gabe utzi diren aspektuetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritakoa hartuko da kontuan.

f. Las proposiciones admisibles no podrán utilizarse en beneficio propio. Si se demostrara que alguien lo ha hecho puede ser juzgada penalmente.

g. Cuantas otras obligaciones les sean de aplicación reconocidas por el presente Reglamento o por la legislación vigente.

VII. DISPOSICIONES FINALES

Primera.

El texto normativo entrará en vigor una vez que el texto definitivo haya sido publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y haya transcurrido el plazo establecido en el artículo 65.2 de la Ley de Bases de Régimen Local, hasta que el Pleno acuerde su modificación o revocación.

Segunda.

En lo no previsto en el presente Reglamento, se establecerá lo dispuesto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.